

## PRENTSA-OHARRA



Carmen B. Mikelarena, Mireille St-Pierre eta Louka Butzbach

### **Azkuna Zentroa – Alhóndiga Bilbaok *Loreak, trenak eta munstroak* inauguratu du, Komikiaren Nazioarteko Egoitzaren bosgarren edizioaren erakusketa**

- Erakusketa Galeria Mediatekan ikus daiteke, eta Carmen B. Mikelarena, Louka Butzbach eta Mireille St- Pierren sormen prozesua erakusten du bere ohar, zirriborro eta marrazkien bidez
- Cité Internationale de la Bande Dessinée et de L'image de Angoulême, Quebeceko Maison de la Littérature eta Azkuna Zentroaren ekimena da Komigintzan nazioarte egoitza, BilbaoArteren laguntzarekin
- *Loreak, trenak eta munstroak* artisten topaketarekin zabaldu da gaur. Artistek ikusleei gidatu diete erakusketan zehar egin duten ibilbidean

### ***Loreak, trenak eta munstroak***

Carmen B. Mikelarena, Louka Butzbach y Mireille St- Pierre

**Noiz:** 2026ko martxoaren 18tik irailak 30era

**Lugar:** Galería Mediateka BBK

Sarrera librea

Informazio gehiago [prentsa@azkunazentroa.eus](mailto:prentsa@azkunazentroa.eus) postan edo  
648 773 373 telefonoan

**Bilbo, 2026ko martxoaren 18a.** Azkuna Zentroa – Alhóndiga Bilbaok, Bilboko Udaleko Gizarte eta Kultura Garaikidearen Zentroak, *Loreak, trenak eta munstroak* inauguratu du, Carmen B. Mikelarena, Louka Butzbach eta Mireille St- Pierre 2026ko Komikiaren Nazioarteko Egoitzako artisten sormen prozesua erakusten duen erakusketa. Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbao, Cité internationale de la Bande Dessinée et de L’image de Angoûleme eta Maison de la Littérature de Quebec-ekin batera antolatuta eta BilbaoArteren laguntzarekin, Mediateka Galerian ikusi ahal izango da 2026eko irailaren 30era arte.

Egonaldia urtarrilean hasi zen Anguleman, apirilean amaituko da Quebec-en, eta Azkuna Zentroko erakusketa esperientzia honen erdialdean izango da. Hiru hilabete horietan, Carmen B. Mikelarena, Mireille St-Pierre eta Louka Butzbach eleberri grafikoarekin lotutako hiru proiektu lantzen ari dira, modu partikularrean eta aldi berean partekatuan. *Loreak, trenak eta munstroak* erakusketan, prozesu hori erakusten dute beren ohar, zirriborro eta marrazkien bidez.

### **Hiru artista, hiru lan**

Louka Butzbach-en (Fontenay-sous-Bois, Frantzia, 1995) komikiak ipuinaren, alegiaren, antzerkiaren eta ametsaren arteko erdibidean daude, pertsonaia gazte, androgino eta malenkoniatsuak dituzte protagonista, eta behar diren espazioa eta denbora eskaintzen dizkiete askatasuna grinaz bilatzeko. Gaur egun, Butzbach Julienne eta Peparen istorioa lantzen ari da, fantasiako Espainiako Gerra Zibil batean frankisten erreklutamendutik ihes egiten duten bi lagunaren istorioa. “Treneko abentura bat da, eta konpromiso politikoa eta lagun zaharrei eusteko zailtasuna aztertzen ditu”, aurreratu du Marseillan bizi den egileak.

Louka Butzbach-en hitzetan, “arritan gertakari historikoak dira nire komikiak idazteko abiaburua, gustuko dut anakronismoak edo gertaera fantastikoak bihurtzea. Jolasten dut nire pertsonaiak amets- garai horietan kokatuz, eta horrek aukera ematen dit galdera politiko batzuk egiteko gure lana ulertzeko moduari edo faxismoaren gorakadari buruz”.

Mireille St-Pierre (Rimouski, Kanada, 1985) ilustratzailea nazioartean ezaguna da, giza emozioak sentsibilitatez erretratatzeko. Egonaldi gurutzatu honen esparruan, *Le désir comme un cimetière* (Desioa hilerri baten gisa) eleberri grafikoa lantzen ari da. “Zati

autobiografiko batzuen bidez, maitasun-harremanek uzten dituzten aztarnak aztertzen ditu”, laburbildu du artistak. Mediateka Galeriarako erakusketan, Angulema eta Bilbo artean izan duen —eta Quebecen jarraituko duen— sorkuntza-prozesua erakusten du, ohar, marrazki eta pasarte narratiboen bidez.

Ilustratzailea eta komikigilea, bere lanean tentsio emozionala lortzen du, “isiltasuna, erritmoa eta erakutsi baino gehiago iradokitzen duen lengoaia bisuala erabiliz”.

Bere aldetik, Carmen B. Mikelarenak (Madril, 1998) proiektuak egiten ditu *freelance* ilustratzaile gisa, eta, aldi berean, praktika artistikoa lantzen du komikian, ehungintzan, zeramikan eta pinturan. Bere lanean, cutea, folklorea eta teknologia berrien erabilera ditu aztergai. *La habitación de las monstruas* (Munstroen gela) proiektuan, mendebaldeko izaki mitologikoen gorputzen irudikapen historikoa aztertzen du, ikuspegi femenino batetik. “Esfingeetatik sirenetaraino, denboran barrena emakumeen irudiarekin lotu diren ezaugarri “izugarriak” aztertzen ditu proposamen grafikoak, baita nola eboluzionatu duten sexualizazio progresibo baterantz”, adierazi du egileak.

Artista bisual gisa, “mitologia, folklorea eta emakumeak artearen historian izan duen irudikapena esploratzen ditut, ikuspegi kritiko eta umoretsu batetik, eta cute-a erabiltzen dut iruditeria horiek tenkatzeko tresna gisa”.

### **Esperientzia nazioarteko inguruneetan**

Carmen B. Mikelarenak, Louka Butzbachek eta Mireille St- Pierrek ondoz ondoko egonaldia dute hiru hirietan. Espazioaz eta bitartekoez gain, egonaldiak behar den esperientzia ematen die nobela grafikoaren sorkuntza garaikideari eskainitako nazioarteko inguruneetan lan egiteko. Formatu honek aukera ematen die sortzaileei elkar aberasteko, parte hartzen duten hirietako kultura-inguruneak esploratzen. Gainera, eragin gurutzatuak eta ikuspegi artistiko ugari jasotzen dituzte, akuilu ona beren sormenerako.

Azkuna Zentroan, Mediateka BBKren barruan dago egoitza eta bertan komikia da espazioaren bildumaren ardatz egituratzaileetako bat. Bilboko egonaldian, lantzen ari diren sormen-prozesuarekin jarraitzeaz gain, Gutun Zuria, Azkuna Zentroko Letren Nazioarteko Jaialdian, parte hartu dute, non beren sormen prozesuaz eta esperientziaz aritu ziren, baita komikiaz ere, sormen-espazioak zeharkatzeko tresna gisa hartuta, narratiba, formatu digitalak eta ingurune artistiko fisiko berriak esploratzen baititu. Bestalde, Alhóndigako fatxada nagusian esku hartu dute, espazio horretarako sortutako hiru ilustrazioekin.

*Loreak, trenak eta munstroak* topaketa baten bidez inauguratu da gaur. Topaketa horretan artistek beren lanei buruz hitz egin dute, eta erakusketaren ondoren Mediateka Galerian egin dute bisita.

### **Carmen B. Mikelarena**

Carmen B. Mikelarena artista bisuala (Madril, 1998) Arte Ederretan graduatua da (UCM), eta ikasketa-egonaldiak egin ditu Plymouth-en, Berlinen eta Granadan. Bere lanean, cutea, folklorea eta teknologia berrien erabilera ditu aztergai. Hainbat beka eta sari jaso ditu, hala nola Sormenerako kañak eta tapak beka (2019), Laboral Kutxa Saria (2021) eta Comic Art

Europe beka (2022). 2024an lehen eleberri grafikoa argitaratu zuen, *Etileno*, INJUVEren sorkuntzako laguntzei esker. Lan horrek, gainera, Splash 2025 saria jaso zuen Oraina ulertu kategorian. 2025ean Fanzimad 2025 saria irabazi du *¡Al congelador!* izeneko fanzine berriarekin.

### **Mireille St-Pierre**

Mireille St-Pierre 1985ean jaio zen Rimouskin. Diseinatzaile grafiko gisa aritu zen zenbait urtez hainbat agentzian eta, gero, ilustrazioaren munduan murgildu zen bete-betean. Bere lana goraipatua izan da nazioartean, eta giza sentsibilitatearen ñabardurak delikatuki atzemateko duen gaitasunagatik nabarmentzen da. 2020an, bere lehen eleberri grafikoa argitaratu zuen Nouvelle adresse argitaletxeak, *La brume* (Lainoa). 2024an *Suivra le néant* (Hurrengoa ezereza izango da) atera zuen. Proiektu horiei hainbat sari eman dizkiote, besteak beste, Applied Arts sariak, New Yorkeko Society of Illustrators-en urteko erakusketaren 67. edizioko epaimahaiaren hautaketa bat, eta aipamen bat liburu-saltzaileen gremioak 2025ean Frantzian emandako Prix des libraires sarien atariko zerrendan.

### **Louka Butzbach**

Louka Butzbach komikigilea Marseillan bizi da. Mikroedizioaren arloan lehen urratsak egin ondoren, lehen liburua eman zuen argitara, *La Constituante* (Éditions Matière, 2023), Frantziako Iraultzan izandako komiki-tailer bati buruzko istorio anakronikoa. *Lagon*, *Colorama Clubhouse* eta *Strapazin* aldizkarietan kolaboratu du, besteak beste, eta ilustrazioa eta pintura jorratzen ditu. Proiektu kolektiboetan parte hartzen du aldizka, hala nola *Cheezy Dream* (2024) web-seriean eta *Exposissimo* (2021-2023) erakusketa-seriean.

### **Informazio gehiago, irudiak edo elkarrizketak**

---

[prentsa@azkunazentroa.eus](mailto:prentsa@azkunazentroa.eus)

Tels. +34 648 773 373